



albistea//AURKEZPENA 'SAGARDOGILE' LIBURUA

Hemeretzi sagardogileren testigantzak bat eginda, 'Sagardogile' liburuan

«Atzean dagoen mundua» gizarteratu eta sagardogileen lana aitortzeko asmoz, Gipuzkoako 19 sagardogileren testigantzak jaso dituzte Saizarrek eta Urretabizkaiak 'Sagardogile' liburuan.

ASTIGARRAGA

2018/10/24 00:00 Asteazkena

Gipuzkoako hemeretzi sagardogileren testigantzekin osatuta, Sagardogile liburua argitaratu berri dute Joxemi Saizarrek eta Joseba Urretabizkaiak. Saizarrek egin ditu testuak; Urretabizkaiarenak dira, aldiz, argazkiak eta diseinua. Larunbatean aurkeztu zuten Sagardoetxean, eta bertan izan ziren egileez gain, liburuko protagonistak.

Sagardogileen esperientziatik, gaur egun arte

Larunbatean aurkeztutako liburuaren helburua da, aurkezpenean azaldu bezala, sagardo ekoizpenaren «atzean dagoen mundua» gizarteratzea eta bide batez, «sagardo ekoizleek historikoki egin duten lana aitortzea».

Horretarako, liburuak ibilbidea egiten du sagardogileen esperientziatik abiatuta, gaur egungo ikerketaraino, iragana eta etorkizuna lotuz.

«Transmisiorako tresna» ere izan nahi duela azaldu zuten, gaur egungo eta etorkizuneko sagardogileei zuzenduta bildu baititu testigantzak.

Hemeretzi elkarrizketatuak 65 urtetik gorakoei eginak dira; horietatik bakarra da emakumea, eta 18, aldiz, gizonezkoak dira.

Tradizionalki egin den lana da, egun azterketa zientifikoekin eskutik emanda dagoena. Horri keinua egin, eta sagardogileek beren ikuspegia ere eskaini dute, «egungo tekniken eta azterketa zientifikoaren inguruan».

Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearekin, Sagardo Mahaiarekin eta Fraisoro Eskolarekin elkarlanean egin dute liburua, eta Foru Aldundiaren laguntza ere jaso du.

TESTIGANTZAK:

Juan Jose Aburuza (Aburuza); Juan Goikoetxea Altzueta (Altzueta); Jose Gregorio Begiristain (Begiristain); Jose Miguel Bereziartua (Bereziartua); Jose Cruz Calonge (Calonge); Rufino Cipitria (Eguzkitza); Juan Bautista Goikoetxea

(Elorrabi); Felix Garmendia (Etxe zuri); Isidro Iguaran (Eula); Jose Goñi Urreaga (Gurutzeta); Juan Ignacio Astiazaran (Iruin-Astiazaran); Jose Mari Lasa (Isastegi); Asentxio Intxauspe (Itxas-buru); Sebastian Zabalegi (Oiarbide); Jose Antonio Iparragirre (Otatza); Joaquin Otaño (Petritegi); Rosario Arruti (Txindurri iturri); Miguel Zapiain (Zapiain); Jose Antonio Gainerain (Zelaia).

[Whatsapp](#) [Emaila](#) [Inprimitu](#)

IRUZKINAK



 PDF

ASTIGARRAGA *Urriak 24*



 PDF

HERNANI *Urriak 24*

ESKELAK

Agenda Bateratua